

# Profesionalentzako Informazio Zerbitzua



## Profesionalentzako Informazio Zerbitzua ezagutzen al duzu?



Profesionalentzako Informazio Zerbitzua (JustiziaSIP), profesionali zuzendutako web ataria da, EAEko organo judizialen auzien egoera denbora errealean kontsultatzeko.

Zerbitzua plataforma seguru batean dago eta operadore juridikoei eta organo judizialei informazioa modu seguruan trukatzeko balio du.



## Zein abantaila ditu zerbitzuak

Beste abantaila batzuen artean, zure bulegotik edo interneterako konexioa duen edozein lekutik judizialki izapidetzen dauden auziei buruzko datu guztiak eguneratuta jaso ditzakezu. Era horretara, bitarteko telematikoen erabilera bultzatu, epaitegietara joan beharra ekidin eta organo judizialekin elkarrekintza positiboa sustatzen da.

Informazio judiziala eskuragarri egoteaz gain, ziurtagiri elektronikoa erabiltzeko beste zerbitzu batzuk ere eskuratu daitezke:

### Jakinarazpenak

Bulego judizialak igorritako jakinarazpenak jasoko dira. Bidalketak, jaso izanaren adierazpenen bitartez egiaztatuko dira.

### Idazkiak aurkeztea

Hasiera emateko edo izapidetzeko idazkiak aurkezteko aukera dago. Bulego judizialak bidalitakoa hartu duela jaso izanaren adierazpenaren bitartez egiaztatuko da.

## Zer nolako zerbitzuak eskaintzen ditu JustiziaSIP-ek?

Arestian aipatutakoez gain, JustiziaSIP-ek hurrengo zerbitzuak ere eskaintzen ditu:

- ➔ Dekanotzaren banaketak: datak, motak, organoak...
- ➔ Izapidetzen dauden auziak: faseak, parte-hartzaileak, aurkeztutako idazkiak, jakinarazpenak...
- ➔ Ikustaldiak eta seinalamenduak: ordutegiak, salak, deitutako pertsonen zerrendak...
- ➔ Beste barruti judizialean dauden datuak.
- ➔ Ordezkapenak kudeatzeko aukera.

Justizian parte hartzen duten operadore guztiak sisteman integratzen doazen heinean, JustiziaSip-eko edukiak gehitzen joango dira, kalitatea bereziki zainduz eta hobetuz.

## Sistemak nire datuen pribatasuna eta segurtasuna bermatzen al ditu?

Jakina. Profesional bakoitzak, bakarrik, bere bezeroak parte hartzen duen auziko informazioa eskuratu dezake, beti ere, ziurtagiri digitalaren bitartez. Hortaz, eduki hori ezin izango du beste inork ikusi.



ProiektuaK hurrengo araudiak ditu oinarri: Sinadura Elektronikoaren 18/2011 Legea; Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 910/2014 Erregelamendua; Botere Judizialaren 5/1985 Lege Organikoaren 230. artikulua; Prozedura Zibilaren Legea aldatzen duen 42/2015 Legea eta 19/2015 Legea, Justizia Administrazioaren eta Erregistro Zibilaren eremuko administrazioa eraberritzeko neurri buruzkoa. Horiek guztiak komunikazio telematikoa garatzen dituzten xedapen daukate.

## Zer egin behar dut zerbitzua erabiltzeko?



Zerbitzua erabili ahal izateko Elkargokide izan behar duzu eta ziurtagiri digitala eduki behar duzu. Informazio gehiago behar baduzu, zure Elkargo Profesionalarekin harremanetan jar zaitez, edo zerbitzu horri buruz [www.justizia.net-en](http://www.justizia.net-en) dagoen atalera jo ezazu; azken horretan, euskarriaren eta plataformaren ezaugarri teknikoak jasota daude.

**JustiziaSip: azkarragoa, seguruagoa eta eraginkorragoa!**

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

DEPARTAMENTO DE ADMINISTRACIÓN PÚBLICA Y JUSTICIA

